

# Sexu banaketaren amildegia

Sexismoak egituratutako lan munduan, emakumeak gizonak baino prekarioago daude: %25 gutxiago kobratzen dute batez beste; kontratu eskasagoen jabe dira; eta goi kargu gutxiagoren arduradun. Sistema neoliberalaren krisiak ez du areagotu baino egin lanaren banaketa sexualak aspaldi sortutako amildegia.

| SAIOA ALKAIZA GUALLAR |

“EMAKUMEOK LAN MUNDURA sartzea lortu bagenuen ere, ez da aukera berdintasunean izan. Oinarritik merkatu diskriminatzaile batera sartu gara: segregazio laborala, soldata baxuak... Eta oraindik zaintza lana gure bizkar dago. Jardun bikoitza edo hirukoitza daukagu”. Zaloa Ibeas LABeko emakume arloko arduradunarenak dira hitzok. Eta sindikatuek zein estatistika institutuak argitaratutako datuek arrazoa ematen diote: emakumeek gizonak baino %25 gutxiago irabazten dute lan ordu bakoitzeko Euskal Herrian, eta lan baldintza ez-egonkorragoak dauzkate. Gainera, etxeko lanak eta zaintza oraindik euren zereginak dira: lau ordu ematen dituzte egunean zeregin horretan; gizonak, bi inguru.

Zaila da oso lan munduaren azterketa orokorra egitea. Euskal Herri osorako erakunde faltak herrialdez herrialdeko datu bilketa konplikatuak du. Instituzio bakoitzak, halaber, neurgailu jakin batzuk hartzen ditu kontuan informazioa bilatzerakoan. Maiz ezinezkoa da argazki orokorra osatzea.

Dena den, datozen paragrafootan, ikuspegi zabala marraztu nahi dugu, ELA eta LAB sindikatuak, Eustateko, Nafarroako Estatistika Institutuko eta Gaindegiko ikerketak oinarri hartuta.

Zoritzarrez, zenbatu gabe geratu ohi dira historikoki feminizatutako postuak diren eta estatistiketan sartzen ez dituzten horiek: adibidez, beltzean kobratutako etxe garbiketarak, zaintza lanak edo prostituzioa.



LUIS JAUREGALIZO / ARGAZKI PRESS

“Orain, ez zaigu esaten etxeko andreak izateko, ez. Orain, enplegua izan behar dugu, baina betiere etxea ahortzi gabe”. (Blanca Fernandez Viguera, soziologoa)

LANEAN BAI, BAINA NOLA?

Euskal Herrian, %69,9 da egun jarduera tasa, alegia, lanean egon edo lan bila dabilen jendearen kopurua. Soilik emakumeenari so eginez gero %66,2 da. Ez dirudi, beraz, ezberdintasun handirik dagoenik. Ezta langabezia tasan ere: %15,9 da orokorra; eta emakumeena %16,6. Baina datuek ehuneko baina ez dute biltzen, ez nolakotasuna. Gakoa ez da zenbat emakumek egiten duen lan, non eta nola egiten duen baizik.

Emakundek argitaratutako dokumentuei erreparatuz, lanaren banaketa sexualak oraindik indarrean darrai. Adibidez, EAEn eraikuntzan lan egiten duten hamarretik bederatzi gizonak dira, eta industrian diharduten hamarretik zortzi. Hirugarren sektoreari dagokionez, hamarretik sei emakumeak dira. Gaindegiak herrialdeko zazpi lurraldeak kontuan izanda egindako irakurketaren arabera, emakumeen kontratazioen ia %60 zerbitzu sektorean egin da. Eta hain zuzen ere hori da kalitate eskasenerako enple-

gua eskaintzen duena. Genero rol klasikoei lotuta ageri dira ofizioak.

Blanca Fernandez Viguera soziologo eta genero adituak sozializazio prozesuaren ondorioztat jo du: “Emakumeoi txikitatik etxeko lanak eta zaintza lanak egiten irakatsi digute. Panpinak emanda, jostailuzko sukaldetxoak... Handitzerakoan barneratuta dugu eginkizun horiek hor daudela eta guri dagozkigula. Baina ezin du horrela izan. Etxeko lanak kolektiboki egin behar ditugu. Lana banatu beharra dago: etxekoa eta merkatukoa”.

Fernandezen iritziarekin bat egiten du LABeko Ibeasek. Aurtengo martxoan argitaratu du sindikatuak *Krisialdiaren ondorioak eta soldaten debaluazioa* txostena. Kritiko aztertu du errealitatea. Sindikalistak dioenez, emakumeek lan merkatura egindako sarrera ez da bestelako aldaketa sozialekin egokitu: “Ez dago bateragarritasun neurri errealik. Goi postuak oraindik ere gizonezkoentzat erreserbatuta daude, kasu gehienetan. Emakumeak zaintza lanekin jarraitu behar du bitartekorik ez dagoelako, besteak beste, zerbitzu publikoak”.

Eta zergatik ez dute gizonek ere zaintza lana eta enplegua bateratzeko arazorik? Aho bizarrik gabe egiten du solas Ibeasek: “Lanaren banaketa, bere ikuspegi integrarean, oraindik ez delako errealitate bat, emakumeok jarraitzen dugulako pisuaren parte oso handi bat eramaten”.

Lanaren kontzepzioa bera ere hor dago. Zergatik dira lan batzuk besteak baino garrantzitsuagoak? Zeren arabera? Fernandezek beste galdera baten bidez erantzun du: “Zergatik dauka erizain batek mediku batek baino garrantzi gutxiago?”. Eta airean utzitako zalantza berak erantzun du. “Ofizio batek emakume aurpegia hartzen duenean balioa galtzen duelako”.

### Ordu gutxi eta aldikotasun handiagoa

“Emakumeak lan merkatura sartu badira ere, euren jarduna ‘laguntza’ gisa hartzen da”. Hala uste du Fernandezek. Hori dela eta, kontratu motak eta ordu kopuruak eremu publiko eta pribatuko lanak batera-

tu dituzan pentsatu ditu sistema neoliberalak, haren aburuz.

Zifrek forma ematen diote soziologoaren usteari. Beharrean dagoen emakumeen %28,8ak lanaldi partziala dauka Hego Euskal Herrian, eta gizonezkoen %5ak baino ez. Nafarroako Estatistika Institutuak era sinpleagoan eskaini du bertako datua: lanaldi partziala hartzen duen gizon bakoitzeko, 3,80 emakumek hartzen dute. Hala, Euskal Herria bere osotasunean hartuta, kontratu murriztuen %80,9 emakumeek hartzen dute.

**Langabezia tasa orokorra %15,9 da, eta emakumeena %16,6. Baina datuek ehunekoa baino ez dute biltzen, ez nolakotasuna. Gakoa ez da zenbat emakumek egiten duen lan, non eta nola egiten duen baizik**

Gauza bera gertatzen da aldikotasun tasarekin. Ohikoagoa da emakumeek tarte baterako jardutea. Adibidez, EAEn, %24,4koa da emakumeen aldikotasun tasa, eta gizonena 6,9 puntu baxuagoa, %17,5ekoa. “Lanaldi partziala kontratu ideala bailitz saldu digute, hala denbora geratzen zaigulako etxeko lanak egiteko. Orain, ez zaigu esaten etxeko andreak izateko, ez. Orain, enplegua izan behar dugu, baina betiere etxea ahortzi gabe”, dio Fernandezek.

Seme-alaben karga ere emakumeek jasotzen dute oraindik orain hein handiago batean. EAeko datuak argitaratu zituen Emakundek 2012an, eta horiek dira eguneratuenak. EAEn aktibitate tasa orokorrak gora egiten du umeak eduki ahala, baina emakume eta gizonen arteko diferentzia ere handitzen da proportzionalki senideak izaterakoan. Aktibitate tasa orokorra %56,2koa da -%49,5ekoa emakumeena eta %63,2koa gizonena-. Baina ondorengo faktoreak nabarmen moldatzen du.

Seme-alabarik ez dutenen tasa %46,9 da: emakumeena %40,4koa; eta gizonena %53,4koa, 13 puntuko diferentziarekin. Seme-alaba bat duten emakumeen tasa, ordea, %55koa da eta gizonena %70ekoa, 15 puntuko aldearekin. Eta bi seme-alaba dauzkaten kasuan, emakumeena %69,8koa da eta gizonena %87,6koa, 17 puntuko diferentziarekin. Lan erreproduktiboaren banaketa ezaren katebegietako beste bat da hau.

Kontraturik gabeko pertsonen kasuan ere aldea nabarmena da: %86,6 emakumea da, %13,4 gizona.

### Kristalezko sabaiarekin aurpegiz aurpegi

Gora heltzen uzten ez duen muga estrukturala da kristalezko sabaia. “Batetik, botere ekonomikoa ez da emakumeekin fio. Orokorrean, gizonek beste gizon batzuei ematen diete ardura. Bestetik, maila subjektiboa ere badu, emakumeak ez dira postu horiengatik borrokatzen”. Fernandezek hor sumatzen du goi karguak ez hartzeko edo ez bilatzeko kokxa.

Ildo beretik jo du Bilgune Feministako kide Saioa Iraolak. Lan erreproduktiboaren pisuaz gaindi, beste hainbat faktore ekarri ditu gogora: “Lan mundua, urteetako egituraketaren eraginez, oso eremu patriarkala izan ohi da eta emakume askok ez dute indarrik, gogorik, sentitzen inguru arrotz horretan sartzeko. Bestalde, autoestimua faltak eragiten du. Emakumeok gure bizi esperientzia dela eta urteetako gutxiesteak direla ere, autoestimua baxuago izan ohi dugu. Gainera, demostratu beharra dago. Emakumeoi espazio publikoan asko exijitzen zaigu”.

Adibide gisa Eustatek EAEn egindako azterketa dugu. 2012ko datuak dira azkenak. Enpresetako zuzendaritzako kideen %32,2 emakumea zen. Erdiko aginte postuetako %30,4. 2000. urteko datuekin alderatuz, egia bada ere ehunekotan presentzia nabarmenagoa dela —orduan, goi karguen %30,6 zen emakumea, eta erdiko postuen %15,6— urruti dago oraindik portzentaje-berdintasuna. Eta jakina denez, portzentajeetan zifra pareki-



**Krisiaren eraginez, gizon eta emakumeen lan baldintzen aldea are gehiago handitu daiteke ez bada lan erreproduktiboa eta produktiboa banatzeko zer edo zer egiten.**

de bat lortuta ere, dena ez legoke eginda.

**Krisiak emakume aurpegia dauka**

Ongizate estatuaren eraisteak aurretik kaltetuen zeuden kolektiboeci

egin die min handiena. LABek argitaratutako informazioaren karietara, zapaldu artean zapalduenetakoa izan da emakumeena.

Fernandezek dio murrizketekin zerbitzu publikoak gutxitzerakoan,

◦ **TERMOMETROA**

kontuan izanda batez ere emakumeek egiten dutela lan hezkuntzan eta osasungintzan, haiek geratu direla batez ere langabezian. LABek martxoaren 8rako ateratako irakurketaren arabera, azken bi urtetan 4.000 lagun kale-ratu dituzte zerbitzu publikoetatik eta gehiengo emakumea da.

Aldebiko txanpona da, gainera, zerbitzu publikoak murriztea. Izan ere, zaintza lana etxera eramaten du bueltan: “Zahar etxeetan zaharrak sartzen ez badira, ospitaleetan gaitxoak azkar botatzen badituzte... Krisiaren efektuetako bat zaintza lana handitzea da, eta berriz egokitu zait emakumeeci. Haiek arintzen dituzte, gehienetan, familien-gan sortutako eragin kaltegarriak. Mendekotasuna duten pertsonaz edota hurrez arduratzea, kasu. Horrez gain, baliabide eskasiak etxean gauza gehiago egitera garamatza. Sukaldean denbora gehiago ematera, arropa jostera... halakoek etxeko lanen pisua handitzen dute”.

Krisiaren eraginez, gizon eta emakumeen lan baldintzen aldea are gehiago handitu daiteke ez bada lan erreproduktiboa eta produktiboa banatzeko zer edo zer egiten, Fernandezek irudiko. “Inork ez du zenbatu zenbat ordu sartzen dituzten etxean egun emakumeek krisiaren ondorioz. Eta hori kontabilizatu beharra dago, ikusarazteko”.

Sistema patriarkal baten aurpegi-tako beste bat baino ez da lan mundua. Horregatik aditu guztiek lanaren kontzeptua bera birpentsatzeko eta ardurak banatzeko beharra nabarmendu dute. ■

